


Gaixotasun erreumatikoak dituzten eta tratamendu biologikoak hartzen dituzten pertsona guztiak arrisku handikoak dira era guztietako infekzioen aurrean; adibidez, birusek (COVID-19ak barne) eragindako infekzioen kasuan.

Arrazoi horregatik, gaur egun tratamendu horiek jasotzen dituzten gaixoek beste pertsona batzuekiko kontaktua eta hurbiltasuna saihestu behar dute, ez kutsatzeko. Helburu hori lortzeko modurik seguruenak da etxean egotea, osasun-agintariek egokitzat jotzen duten denboran gutxienez, eta gaur egun indarrean dauden prebentzio-neurriak betetzea.

Lana beste pertsona batzuekin kontakturik edo hurbiltasunik izan gabe egin ezin denean, hobe da lanera ez joatea eta etxean geratzea. Beraz, kasu horretan familia-medikuarekin harremanetan jarri beharko dute, dagokien baja hartzeko.

Todas aquellas personas con enfermedades reumáticas que están con tratamientos biológicos son de alto riesgo para padecer infecciones de todo tipo, que incluyen las virales, y dentro de ellas las causadas por el virus COVID-19. Por esta razón, los pacientes que reciben en la actualidad estos tratamientos deben evitar el contacto y la cercanía con otras personas, para no contagiarse. La manera más segura de conseguir este objetivo es permanecer en el domicilio al menos el tiempo que las autoridades sanitarias estimen conveniente mantener las medidas preventivas que rigen en la actualidad. Salvo que el trabajo se realice sin contacto ni cercanía con otras personas, es mejor evitar acudir a éste y permanecer en el domicilio. Para ello, deberán contactar con su médico de cabecera que será quien tramite la baja pertinente.



Izpta./Fdo.: J. Belzunegui.
Donostia Ospitaleko Erreumatologiako atalburua
2020ko martxoaren 23a.